

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2015eko otsailaren 27an aurkeztuko du

Niki de Saint Phalle

Niki de Saint Phalle

- Komisarioak: Camille Morineau eta Alvaro Rodriguez Fominaya
 - Egunak: 2015eko otsailaren 27tik ekainaren 11ra
-
- **Niki de Saint Phalleren —XX. mendeko lehen artista feminista garrantzitsua— lanaren atzera begirako osoa.**
 - **Erakusketak artista polifazetiko eta aitzindari baten obren ikuspegi berria eta sakona eskaintzen du, bere margolanen, eskulturen, grabatuen, performanceen eta zinema esperimentalaren barrena egindako ibilbidearen bitartez.**
 - **Bere obraren indarkeria, erradikaltasuna eta konpromiso soziala, eta bere lan ospetsuenetako batzuen ikuspegi alaia eta kolorista batera azaltzen dira.**

Guggenheim Bilbao Museoak *Niki de Saint Phalle* aurkezten du, Niki de Saint Phalleren (Neuilly-sur-Seine, Frantzia, 1930–San Diego, AEB, 2002) atzera begirako osoa. *Nana* alai eta boteretsuak bezalako lanengatik, *Tiro-margolan* zirraragarriengatik eta Toscanako *Tarotaren lorategia* bezalako arte publikoko lan adierazgarriengatik nazioartean ospetsua da, eta Errealismo Berriaren barruan kokatzen dute artista hau.

Guggenheim Bilbao Museoak eta Réunion des Musées Nationaux - Grand Palais-ek antolatuko dute erakusketa Niki Charitable Art Foundation-ekin lankidetzan. Espainian Niki de Saint Phalleri eskaini zaion lehen atzera begira garrantzitsua da. 200 artelan eta artxiboko dokumentu baino gehiagoren bidez, artistari buruzko ikuspegi erabat berria eskaintzen du.

Bertan ondo baino hobeto jasotzen dira margolari, eskultore, grabatzaile, performanceen eta zinema esperimentalaren egile gisa, sormenezko unibertso propioa eta munduaren ikuspegi aitzindaria duen artista honen alderdi anitzak. Alderdi horiek egileak berak azalpenak ematen dituen proiektzio batzuen bitartez osatzen dira.

Bisitariak Niki de Saint Phalleren ibilbidea egituratzen duten ardatz eta mito nagusiak ezagutu ahal izango dituzte 2.000 metro karratuko erakusketa honetan. Artista honek bizirik zela jaso zituen nazioartean laudorioak eta esker ona; halaber, hedabideen interesa erakartzen jakin zuen, Andy Warholek bezala.

Kronologikoki eta gaika antolatu da, Niki de Saint Phallek ibilbide osoan behin eta berriro jorrotutako gaiak agerian ipintzeko, hala nola, femeninoa denaren indarra eta gizarte-arauei erasoak. Bere lanetan elkarrekin azaltzen dira erradikaltasuna eta konpromiso politiko eta sozial sendoak eta mundu osoan ezagunak diren *Nanak* artelanen kolorea eta baikortasuna. Beraz, atzera begirakoak Gaudi, Dubuffet eta Pollock inspirazio-iturri dituen mundu paradoxikoa eta berezia erakusten du.

Artista frantziarra eta estatubatuarra

Niki de Saint Phalle Frantzian jaio zen eta bizitzaren zati handi bat bertan igaro zuen. Hala ere, Estatu Batuetan hazi zen, eta bere karreraren azken zatia bertan igarotzea aukeratu zuen. Beti bere bi aberrien artean, bi herrialdeetako panorama artistikoan hartu zuen parte.

Frantzian Errealismo Berria mugimenduaren emakume artista bakarra bezala ezagutzen dena, Jasper Johns eta Robert Rauschenberg neodadaistekin eta honen Combines-ekin ere lotzen dute. Halaber, beste ikuspegi bat eman zion pop artearen aitzindarietako bat dela esaten da.

Lehen artista feminista

Era berean, Niki de Saint Phalle XX. mendeko lehen artista feminista garrantzitsutzat jo da. Emakumearen gorputzaren irudikapen berri bat sortu zuen, erotismoaren eta irudi mitiko nagusien bitartez, eta finkatuta zeuden kanonak zalantzan jarri zituen; horrela, emakumearen boterea eta gizartean duen zeregina aldarrikatu zituen. Alaba, emaztea, ama, gurlaria, sorgina eta jainkosa dira bere *Nanak*; hots, artista beraren eta bere ibilbide osoan zehar berrinterpretatu zituen beste emakume garaikide batzuen irudimen-erretatuak.

Emaztegaiak, *Erditzeak* eta *Jainkosak* izeneko segidek eta, *Nanak* artelanen ondoren hasitako *Ama irensteak* sailak benetako emakumezkoen mitologia osatzen dute. Mitologia hori artistaren testuen eta aitortpenen bitartez, baita bere filmen bitartez, osatzen da.

Indarkeria eta konpromisoa

Feminismoa da konbentzionalismoen eta jarrera zurrunen aurka borrokatzeko berak erabili zuen elementuetako bat, baina ez bakarra. Niki de Saint Phalle artista konprometitua izan zen. Bere lanetan kritika sozial eta politiko nabarmena atzematen da, askotan indarkeriaren eta kaosaren bitartez adierazten dena.

Nanak artelanen alderdi alai eta koloretsuengatik ezagunagoa den arren, Niki de Saint Phalleren lan guztiak hainbat ikuspuntu eta sakontasun-maila dituzte. Zama iraultzaile argia ere badute, gainera.

Horren adibide garbia dira *Tiroak* (*Tirs*), errifle batekin artistak edo ikusleek margolanak tirokatzen eta txikitzen zituzteneko performanceak. Erakusten zuten bortizkeriagatik eta emakume batek antolatzen zituelako, bere garaian zalaparta handia eragin zuten. Performanceak *happeningen* historiaren hasierako artelanen artean kokatzen dira.

Tiroak performanceak artistaren artelan goiztiarren adibide dira; ia beti gai sozialek eragindakoak dira; asmo zuten, besteak beste, artearen, erlijioaren eta gizarte patriarkalaren ikuspegi tradizionalari, armak legezkoak eta erraz eskuragarriak diren Estatu Batuen egoera politikoari, Gerra Hotzari eta Aljeriako gerrari aurka egitea. Halaber, Saint Phalle arrazakeriari aurre egiten,

eta eskubide zibilak eta kultur aniztasuna defendatzen aurrenetako artistetako bat izan zen, baita, azken etapen, hiesaren ondorio lazgarrien berri emateko artea erabiltzen ere.

Arte publikoaren abangoardian

Bere izaera aitzindariaren beste adibide da Saint Phalle mundu osoan zehar bere aztarnak espazio publikoan uzten lehen emakumea izan zela; izan ere, aurki izan zuen mundu osoari zuzentzeko beharra, eta ez bakarrik museoetako bisitariari. Arte publikoa sortzeko erabaki goiztiar hori hautu politiko gisa interpretatu behar da eta XX. mendearen erdialdean egindako bere ikerketaren funtsezko zati bat da. Ibilbide osoan proiektu arkitektonikoak eta eskultura erraldoiak sortu zituen bata bestearen atzetik: iturriak, haurrentzako parkeak, lorategi esoterikoak eta bizitzeko moduko etxeak. *Tarotaren lorategi* handientsua artistak berak oso-osorik finantzatu zuen eta haren funtsezko lan bat da. Horretarako, sormena erabili zuen: lurrina, bitxiak, grabatuak eta artista-liburuak saldu zituen.

Ibilbidea erakusketan barrena

Bortizkeria margotzea

"Margotzeak nire arima aztoratzen zuen kaosa lasaitzen zuen. Nire lanean etengabe agertu diren herensugeak baretzeko modu bat zen".

Erakusketa 305. aretoan hasten da. Bertan, bere bizia arteari eskaintzea eta autodidakta izatea erabaki zuen Niki de Saint Phalle gazte baten lehen lanak erakusten dira. Europara hainbatetan bidaiatu zuenez, Parisko artegintzaren eta literaturaren giroetan murgildu zen. Halaber, erbesteratutako artista amerikarrekin ere harremanetan jarri zen.

Testuinguru horretan, 1950eko hamarkadaren amaiera aldera formatu handiko margolan batzuk egin zituen. Lan horietan, Europa zaharraren eta AEBko arte berritzailearen eragina ikus daiteke. Izan ere, margolan handi haien perspektiba zabala eta laua Italiako *Trecentoko* lanak zituen eredutzat; azalera pikortsuak, berriz, Jean Fautrier eta Jean Dubuffet margolarietatik datozkio; pinturaz bustitako zero zuri-beltzak Jackson Pollock-en ziprztinak gogora ekartzen dituzte, eta koadro horien azalean itsatsitako objektuek Jasper Johnsen eta Robert Rauschenbergen "Combine" lanak.

Jada bere lehen lanetatik, Niki de Saint Phalleren ibilbidean behin eta berriro ageri den kontraesana ikus daiteke: bortizkeria eta kaosaren eta jolas eta bizipozaren elkarketa.

Eskopetaren artea

"Artea aurkitzea zorionekoa izan zen, psikologiaren aldetik terrorista bihurtzeko ezaugarri guztiak nituen. Baina, horren orde, armak erabili nituen kausa on baterako: artearen kausarako".

Erakusketak 306. aretoan jarraitzen du, *Tiroak* izeneko bere segida zirrargarriaren bitartez. Ia hamar urtetan, 1961etik 1970eko hamarkadaren hasierara arte, Niki Saint Phallek 20 tiro-ekintza

baino gehiago burutu zituen. Ekintza horietan performancea, Body Art-a, eskultura eta pintura tartean hartzen zituen. Kasu gehienetan ekintza horiek grabatu edo argazkitan jaso zituen.

Guztiek erritu bat jarraitzen zuten. Prestaketa-fasean, kontu handiz aukeratutako objektuetan koloretako pinturaz betetako poltsak sartzen zituen, gainazal lau batera lotzen zituen eta igeltsu zuriz estaltzen zituen. Saioan bertan, artistak, beste parte-hartzaile batzuek edo bertatik pasa zitekeen edonork pieza tirokatzen zuten; horrela, artelana zuzenean konfiguratzeko zuten kolore-leherketak gertatzen ziren.

Artearen historian lan hauen inpaktuak eta goiztiartasunak —lehen *tiro-margolan* hura ikusi ondoren, Pierre Restany arte-kritikariak Niki de Saint Phalle Errealista Berrien taldean sartzera gonbidatu zuen— haien ezaugarri sakonagoak ezkutatu zituzten. Izan ere, margolan horiek esanahi anitzak dituzte: “erailketaren” antzezpenetzat uler daitezke, baina gizartearekiko eta politikarekiko kritika ere badira, baita aldarrikapen feminista ere.

Emakumeen rolak

“Oso gaztetan heroi bihurtzea erabaki nuen. Nor izango nintzatekeen? George Sand? Joana Arc-ekoa? Napoleon-emakume bat?”

307. aretoan ikus daitezke *Tiro-margolanen* azken hautaketa bat eta artistak *Emakumeen rolak* izenburupean bildu zituen hainbat artelan. Emakumearentzako aukera-berdintasunik ez zegoela eta identifikatzeko moduko emakume-eredurik ez zegoela ikusita, Niki Saint Phallek “heroi bihurtzea” erabaki zuen oso gaztetan.

Simone de Beauvoir-en *Le Deuxième Sexe* (1949) lanaren irakurketak hunkitu zuen, eta, emakumearen eskubideen aldeko mugimenduak sortu baino urte batzuk lehenago, Saint Phalle aitzindaria izan zen emakumea bere artearen gai bihurtzen eta bere konplexutasun osoan aztertzen.

Artistak emakumeak beren emakume-izaeraren mugen biktima gisa erakusten ditu, baita asmatu beharreko mundu berri bateko izan litezkeen heroi gisa ere. Lan horiek *Emaztegia, Erditzea, Prostituta, Sorgina, Jainkosa* izenburu iradokitzaileak dituzte, eta muntaiak dira hark egindako muntaiek hunkigarriak izaten jarraitzen dute erakusten duten erradikaltasunari eta anibalentziari esker.

Gizarte matriarkal berri bat

“Komunismoak eta kapitalismoak porrot egin dute. Bada garaia gizarte berri bat, matriarkala, eratzeke, nire ustez. Gosez hilko lirateke pertsonak emakumeek esku hartuko balute? Pentsatzen dut, eta ezin dezaket saihestu, ama diren, ama izateko gaitasuna duten emakumeek, zoriontsu nintzatekeen mundu bat eraikiko luketela.”

Erakusketak 303. aretoan jarraitzen du Niki de Saint Phallek *Nanak* deitu zuen segidaren produkzioaren bitartez. Hasieran, itsatsitako paperez (*papier collé*) eta artilez egiten zituen, eta,

gerora, erretxinaz. Artistaren arabera, emakumeen irudikapen hauek, sarritan sabel handituak zizutenak, jatorria zuten Larry Rivers-ekin egindako marrazki bat, Riversen emazte haurdun Clarice irudikatzen zuena. .

Emakume ederrak eta indartsuak dira *Nanak*, eta emakumeek boterea duten mundu berri bat hezurmamitzen dute. *Nanak* artelanen gorputzak, emankorrak eta koloretsuak, aurki eraldatu eta zabaldu ziren, Nana Etxe bihurtzeko. Nana Etxe horiek bizitzeko beste modu bat ematen zuten aditzera. Nana Etxe hauen artean lehena eta nagusia Emakumea (*Hon*) izeneko lana izan zen. Jendea bere barruan sartzeko moduko aldi baterako eskultura erraldoia Stockholmeko Moderna Museet-en 1966an sortu zuen.

***Nanak* boterera**

“Niretzat, nire eskulturek emakumeen mundua, handiagotua, emakumeen asmo-handitasunak, emakumeen zeregina gaur egungo munduan, emakumeen boterea aditzera ematen dituzte”.

Nanak askotarikoak dira: dantzariak nahiz kirolariak, handiak —erraldoiak, batzuetan—, mardulak batzuk, sexiak besteak. Baina guztiek dute haien baitan emakumeak eskubide guztien jabe liratekeen mundu berriaren ametsa. Haien gorputzak modak ezarritako estereotipoetatik aske agertzen zaizkigu, emetasun irribarretsua eta mugarik gabea erakusten dute. Artistaren hitzetan, asmo hau zuen: *“Gizonak baino gehiago izatea: haien pribilegioak izatea eta feminitateari eustea, kapela ederrak eramaten jarraitzen dudana bitartean”.*

Nanen irudiak puztukietan, serigrafietan, bitxietan eta argitalpenetan agertu ziren askotan. Niki Saint Phallek artearen munduan zuzendu zuen borroka feministaren gerlariak dira. *Nana* horietako asko eskubide zibilen —Saint Phallek nahiko goiz egin zuen bat auzi honekin— aitzindari ere badira. *“Ni, basatia? Azkenean, hori da erantzuna: emakume bat gizonen zibilizazioan gizon beltz bat zibilizazio zuri batean bezalakoa da. Emakumeak eskubidea du ezetz esateko, matxinatzeko, bere independentzia aldarrikatzeko”.*

Nanak bilduma Museoaren Atrioko terrazako lanekin osatzen da. Bertan, *Hiru Graziak* (*Les Trois Grâces*) izeneko eskulturen multzoa erakusten da. Lan hauek kanpoaldean ipini direnez, bertatik pasatzen diren guztiek ikusi ahal izango dituzte. Era horretan artistaren artelana eta hiria lotzen dira, eta artistarentzako funtsezko asmo hori betetzen da.

Dianaren ametsa

302. aretoan *Dianaren ametsa* (*Diana's Dream*) izeneko eskultura garrantzitsu bat aurkituko dugu, *Ama irensleak* (*Devouring Mothers*) segidarekin eta *Aitatxo* (*Daddy*) —bere lehen film luzea— lanarekin batera.

Niki de Saint Phalle artegintzaren zati handi bat bere irudimenezko unibertsoaren adierazpena da; haren ametsak eta amesgaiztoek sortutakoa. Artistaren ustez ametsak norberaren mitologia pertsonala osatzen zuten eta bere arketipozko irudi sakonak aditzera ematen zituzten.

Dianaren ametsa artelanean, Saint Phallek lotan dagoen jainkosa gerlariaren buruaren baitan sortzen den antzerki sorginduaren irudiak erakusten dizkigu: nahas-mahasean daude munstroak eta animalia mehatxagarriak sinbolo positiboekin, bihotzekin eta eguzkiarekin esaterako. Bi burudun Janus jainkoak munduaren eta guregan dugun dualtasuna irudikatzen du.

Ama irensleak, aita harrapariak

“Gure bizitzan guztiok ezagutu ditugu ama ona eta ama txarra. Ama ona Nana lanen bidez irudikatu nuen; hemendik aurrera, horren antitesia, izan nahi ez dugun ama hori, landuko dut”.

1970eko hamarkadan Niki Saint Phalle bere lehen film luzea, *Aitatxo (Daddy)*, egiten hasi zen. Peter Whitehead-ekin batera ekoitzi zuen film esperimental honetan argi eta garbi erakusten dira aitak egindako sexu-gehiegikeria eta sexuen arteko botere-dinamika.

Aldi berean, artistak eskultura-segida berri bati heldu zion, *Ama irensleak* izenburuarekin. Emakume heldu hauek esparru eta egoera ezberdinetan irudikatu zituen: eszenak osatuz irudikatu zituen emakumeok, hainbat elementurekin batera, baita bigarren mailako pertsonaiekin ere. Irudikatze horiek testuinguru isekagarri nahiz beldurgarri batetik aterata daudela dirudi. *Nana* alaien ondoren, Niki de Saint Phallek, *Ama irensleak* lanen bitartez, emakumeen rola arakatzeko jarraitu zuen irimotasunez.

Nire lanak gehiengoarentzat dira

Artistaren arte publikoaren produkzioa 301. (Totem-ei eskainia) eta 304. aretoetan ikus daiteke. Honekin amaitzen da erakusketari lotutako ibilbidea.

Niki de Saint Phalle artistarentzako bere sormenaren arrazoietakoa bat alaitasuna, umorea eta kolorea eskaintzea zen. 1960ko hamarkadatik aurrera hasitako arkitektura-proiektu erraldoiek artearen ikuspegi horri erantzuten zioten: pertsona bakoitzarengana jotzen dute eta jendea zoriontsu egiten saiatzen dira..

Bere artelan publiko garrantzitsuena eta handinahiena *Tarotaren lorategia* (Toscana, Italia, 1978–98) da. Bertan bildutako pieza bakoitzak hainbat interpretazio-maila eskaintzen du, eta eduki konplexua dute, baina, askotan, haien itxura dela-eta, azaleko irakurketa baten alde galtzen da konplexutasun hori. Artelan honen ezaugarrietako bat da oso-osorik artistak berak finantzatu zuela, obrarekin lotutako produktuen eta edizioen salmentaren bitartez. Beste behin ere, Niki de Saint Phalleren lanean ikuspegi berritzailea eta aitzindaria ikusten dugu.

Gune didaktikoa

Erakusketaren gune didaktikoan dago generoarekin, indarkeriarekin eta hiesarekin lotutako gaien inguruan, Niki de Saint Phallek, ibilbide osoan zehar, erakutsi zuen konpromiso sozialari buruzko informazioa. Bertan ikusgai daude hainbat lan, besteak beste, haurrentzat idatzitako *AIDS: You Can't Catch it Holding Hands* (Ez zara kutsatzen eskua emateagatik, 1987) liburua. Artistak lan honen ilustrazioa egin zuen gaixotasun honen prebentziorako kanpainak babesteko.

Gainera, gune honetan artistak berak ekoizitako lurrunen eta bitxien bildumak ematen dira ezagutzera. Horien salmentaren bitartez artistak obra publikoko proiektuak finantzatu zituen, hala nola, *Tarotaren lorategia* lan ikusgarria Toscanan, eta *Kalafia erreginaren zirkulu magikoa* Kalifornian. Niki de Saint Phalleren arte publikoan biltzen dira bere aldarrikapen feministak, politikoak eta sozialak, eraikuntza eta pertsonaia ederrez betetako ingurune arkitektoniko batean.

Jarduerak

Hitzaldia eta elkarrizketa: *Niki de Saint Phalle, vie privé/vie publique. Niki de Saint Phalle, bizitza pribatua / bizitza publikoa.* (Otsailak 25, asteazkena)

Camille Morineau erakusketaren komisarioak Niki de Saint Phalleri buruzko hitzaldia emango du. Halaber, Bloum Cardenas *Niki Charitable Foundation* patronatuko kidea eta artistaren biloba elkarrizketatuko du.

Aldibereko itzulpena frantsesetik gaztelaniara.

Lekua eta ordua: Entzungela, 18:30

Sarrerak doan. Sarrerak txarteldegietan eta webgunean jaso.

Hitzaldia: *Niki de Saint Phalle: emakume artista bat tiroka.* (Martxoak 5, osteguna)

Patricia Mayayo Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Artearen Historiaren irakasle titularrak, eta emakumeen historiaren, historiografia feministaren eta praktika artistiko garaikideen ikerlariak hitzaldi bat emango du XX. mendeko artean emakumearen zereginari buruz, Niki de Saint Phalle artistaren figuraren eta lanaren bitartez.

Lekua eta ordua: Zero Espazioa, 18:30

Sarrerak doan. Sarrerak txarteldegietan eta webgunean jaso.

Bisitaldi paregabeak. Partekatutako hausnarketak: *Niki de Saint Phalle.* (Martxoak 4 eta 11)

Museoko Arte-ardurako eta Hezkuntzako arloetako profesionalek erakusketa berria, erakusketaren muntaketaren barrenaldeak eta beste bitxikeria batzuk azalduko dituzte bi bisitaldi paregabeen bitartez.

- *Arte Ardura Arloko ikuspegia* (martxoak 4, asteazkena)

Egilea: Alvaro Rodriguez Fominaya, erakusketako komisarioa eta Solomon R. Guggenheim Museum-eko arte-arduraduna.

- *Funtsezko kontzeptuak* (martxoak 11, asteazkena)

Egilea: Luz Maguregui, Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza Arloko koordinatzailea.

Lekua eta ordua: Elkargunea Informazio-mahaiari, 18:30etik 19:30era.

Sarrerak: 2 € Museoaren Lagunak eta 3 € publiko orokorra (Museorako sarrera ez dago barne).

Talde bakoitzeko 8 lagun gutxienez. Webgunearen bitartez soilik.

Babeslea: Agirre Bizkaitar Fundazioa.

Zuk zeuk egin sormen-saioak

Erakusketaren funtsezko ideiei eta artelan zehatzei loturiko gazteentzako eta helduentzako gaikako lantegiak.

- *Diseinu- eta moda-lantegia.* 14 urtetik gorakoei zuzendua. (Martxoak 19 eta 26, osteguna) Irakasle-lanetan: Itxaso Torrontegui, ehungintzako diseinatzailea eta INEDiako *Pattern Design, Estampados y Superficie* graduatu ondoko ikasketen sortzailea 2011n.

Niki de Saint Phallek New Yorkeko moda-munduan hartu zuen parte 1940ko hamarkadaren amaiera aldera, *Vogue*, *Harper's Bazaar* eta *Time Magazine* aldizkarietarako modelo-lanak eginenez, besteak beste. Lantegi honetan parte-hartzaileek artearen munduan oinarritutako euren estanzak diseinatu ahal izango dute.

Lekua eta ordua: Hezkuntza-gune berria, 18:00etatik 19:45era.

Sarrerak (bi saioz osatutako lantegia): 24 € Museoaren Lagunak eta 30 € publiko orokorra.

Gutxienez 8 lagun, gehienez 20. Ezinbestekoa da webgunean aldeztatik erreserba egitea.

- *Hitzen, sinboloen eta karta-sorten lantegia*. 18 urtetik gorakoei zuzendua (apirilak 16, osteguna)

Irakasle-lanetan: Mabi Revuelta. Artista honek oso grafiko eta irudi pertsonalei lotutako karta-sorten eta alfabetoen ekoizpena ikertzen du, bere azken lanean.

Niki de Saint Phalleren irudizko mundua sinboloz beteta zegoen. Sinbolo horiek bere parkeetan (*Tarotaren lorategia*) ipintzen zituen, eta bere lagunentzako gutunetan eta postaletan marrazten zituen. 49 sinboloz osatutako hiztegi txiki bat ere egin zuen. Lantegi honetan parte-hartzaileek euren alfabetoa edo karta-sorta diseinatuko dute artistak egindakoetan oinarrituta.

Lekua eta ordua: Hezkuntza-gune berria, 18:00etatik 19:45era.

Sarrerak: 12 € Museoaren Lagunak eta 15 € publiko orokorra. Gutxienez 8 lagun, gehienez 20.

Ezinbestekoa da webgunean aldeztatik erreserba egitea.

Aretoetako orientatzaileak

Artistari eta bere lanari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, bisitariak aretoetako orientatzaileen laguntza izango dute. Museoak egunero, 11:00etatik 14:00etara, dohainik eskaintzen duen zerbitzua da.

Erakusketaren katalogoa:

Erakusketaren katalogoak Niki de Saint Phalleren lanaren kromatismo sutua omentzen du eta artistaren produkzioa aztertzen du, erakustaldi grafiko eder baten eta nazioarteko adituek sinatutako hamabost entseguren bitartez. Aditu horiek ikuspegi berriak eskaintzen dituzte artistak artearen historian duen garrantzia interpretatzeko. Dokumentu ugari osatutako eta egilearen aipamen interesgarri tartekatutako kronologia zorrotzak, batetik, eta erakusketa osatzen duten artelanen zerrendak eta bilduma bibliografikoak, bestetik, osatzen dute 370 orrialdeko liburu hau. Frantzia liburuak 2014ko Parisko erakusketen katalogo onenarentzako "CatalPa Prize" sari ospetsua eskuratu du.

Azaleko irudia:

Gwendolyn, 1966–90

Margotutako poliesterra metalezko armazoi gainean.

252 x 200 x 125 cm

Edizioa: 3 aletik 2

Sprengel Museum, Hannover, artistaren dohaintza, 2000

© Niki Charitable Art Foundation, Santee, AEB

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila
Tel: 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.es
www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.es (prentsa-eremua).

Prentsa irudiak:
Niki de Saint Phalle
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90
08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.es

Niki de Saint Phalle apuntatzen, 1972
Zuri-beltzeko argazkia kolorez indartua, *Aitatxo (Daddy)* film luzetik ateratakoa.
Argazkia: © Peter Whitehead
© Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB



Niki de Saint Phalle Deià-n, 1955
Koloretako argazkia
Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB.
© Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB



Gaeko saioa (Night Experiment), 1959 inguru
Pintura, igeltsua eta askotariko objektuak kontratxapatu gainean
130 x 196 x 13 cm
Sprengel Museum, Hannover, artistaren dohaintza, 2000
© Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB
Argazkia: © Laurent Condominas



Tiro handia - J galeriako saioa (Grand Tir - Séance galerie J), 1961
Pintura, igeltsua eta askotariko objektuak konglomeratu ohol gainean
143 x 77 x 7 cm
Bilduma pribatua, honen eskaintza: Galerie G.-P. & N. Vallois, Paris.
© Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB
Argazkia: © Laurent Condominas



Estatu-buruak (King Kongerako estudioa) [Heads of State (Study for King Kong)], 1963ko udaberria
Pintura eta maskarak zurezko ohol gainean
122,5 x 198 x 21 cm
Sprengel Museum, Hannover, artistaren dohaintza, 2000
© Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB
Argazkia: © BPK, Berlin, Dist. RMN-Grand Palais / Michael Herling / Benedikt Werner



Pirodaktiloa New York gainean (Pirodactyl over New York), 1962

Pintura, igeltsua eta askotariko objektuak zurezko bi ohol gainean

249,9 x 309,9 x 29,8 cm

Guggenheim Abu Dhabi

© Niki Charitable Art Foudation, Santee, USA

Argazkia: © André Morain; honen eskaintza: Niki Charitable Art Foundation eta Galerie G.-P. & N. Vallois, Paris



Burezurra (Hausnarketarako gela) [Skull (Meditation Room)], 1990

Beirazko eta ispiluzko mosaikoa, zeramika eta urre-xafla

230 x 310 x 210 cm

Sprengel Museum, Hannover, artistaren dohaintza, 2000

© Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB

Argazkia: © Michael Herling



Zaldia eta emaztegaia (Cheval et la Mariée), 1963

Oihala, jostailuak, askotariko objektuak eta saretak

235 x 300 x 120 cm

Sprengel Museum, Hannover, artistaren dohaintza, 2000

© Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB

Argazkia: © BPK, Berlin, dist. RMN-Grand Palais / Michael Herling / Aline Gwose



Andrea edo Nana berdea zorro beltza eskuan (Madame ou Nana verte au sac noir), 1968

Margotutako poliesterra

250 x 160 x 50 cm

Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB; honen eskaintza: Galerie G.-P. & N. Vallois, Paris

© Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB

Argazkia: © André Morain



Dolorès, 1966–95

Margotutako poliesterra saretak gainean

550 cm-ko altuera

Sprengel Museum, Hannover, artistaren dohaintza, 2000

© Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB



Gwendolyn 1966–90

Margotutako poliesterra metalezko armazoi gainean

252 x 200 x 125 cm

Edizioa: 3 aletik 2

Sprengel Museum, Hannover, artistaren dohaintza, 2000

© Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB



Atontzen (La Toilette), 1978

Margotutako itsatsitako papera eta askotariko objektuak (mahaia)

Emakumea: 160 x 150 x 100 cm

Mahaia: 126 x 92 x 80 cm

Collection MAMAC, Niza, artistaren dohaintza, 2001

© Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB

Argazkia: © MAMAC / Muriel Anssens



Dianaren ametsa (Le Rêve de Diane), 1970

Margotutako poliesterra

280 x 600 x 350 cm

Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB

© Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB

Argazkia: © Laurent Condominas



Gora amodioa (Vive l'Amour), 1990

Arkatz-markatzailea eta gouachea Bristol paper gainean

45 x 55 cm

Niki Charitable Art Foundation, Santee, AEB.

© Niki Charitable Art Foudation, Santee, AEB

Argazkia: © Ed Kessler



Tarotaren lorategiaren bista

Garavicchio, Italia

Argazkia: © Laurent Condominas

